# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Kokapena eta garapen historikoa OO

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**




**Kokapen planoa** Bilbo mailan eta zorrotzaurre mailan **E 1/15000**



**Irlaren zeharkako ebaketa,** bere morfologia aztertuz **E 1/1250 AA'**

Ikusi daiteke nola aldez aldera eraikin industrialez okupatuta dagoen



**Garraiobide analisia**, Penintsula hiriaren periferian kokatzen denez nahiko baztertuta dago, garraiobide publiko bakarra bus linea txikia bat da.

Itsas trafikoaren geldiune posibleak — Bus geltokiak — Iruña metro geltokia (Deusto)



**interes gune eta kultura analisia**, Eskema honetan pasealeku nagusia markatu da, bertan gaur egun sortu diren kultur mugimendu espazioak adieraziz. Gaur egun auzo mugimenduak irlaren egoera hobetzea lortu du, biztanleentzako zerbitzu kulturalak eskainiz eta penintsula kanpoko biztanleak erakarriz.

1.arraun eskola/ 2.papelera espazioa/ 3. haceria/ 4. zawp/ 5. open space/ 6.Karola zirko eskola 7. piugaz rokodromoa eta kirol gunea/ 8. zorrotzaurre punta beatokia.




Zorrotzaurre irlaren **eraikin esanguratsuen eskema**

Deustuko erribera kalean mantenduko diren eraikin ez industrialak

Industria eraikin nagusiak, eraitsiko direnak

Industria eraikin nagusiak, mantenduko direnak

## IRLAREN GARAPEN HISTORIKOA

Deustuko erribera - Kanalaren sorrera - Gaur egun 1950-2015

1950. urteko abuztuaren 11.rarte, Deustuko kanalaren eraikuntza lehen fasea hasi zen arte, Zorrotzaurre penintsula Deustuko erribera zonaldea izan zen. Gaur egun Deustuko erribera izena hartzen du kale nagusiak alegia. Kanal honen eraikuntza ibaiaren hobekuntza proiektua izan zen, bertako trafiko nautikoa errazteko hain zuzen.

Nerbioi ibaiko "kurbak" oso deserosoak ziren itsas trafikorako. Beraz, hau konpontzeko, bi aukera planteatu ziren. Ibaiaren ubidea zuzentzea edo kanal berri hau eraikitzea, bigarren aukera burutu zelarik. 1929. urtean proiektuaren lehen proposamena gauzatu zen.

Guda zibilak kanal honen obrak geldiarazi zituen, baita ideia ere. 1948. urtean honen eraikuntza bi fasetan antolatzen zuen proiektua planteatu zen eta 1949-an baiezkoa eman zitzaion. Modu honetan bi kaia sortu ziren zonaldeari izaera desberdina eskainiz, eta itsas trafikoa deskongestionatuz. 1968. urtean Ireki zen 2006 urterarte (38 urteko bizitza proiektatzeko, finantziatzeko eta burutzeko denbora gehiago behar izan zuen kanalarentzat).

Kanal honek "irlaren" hirigintza, partzelazioa eta egitura guztiz eraldatu zuen.

38 horietan zehar irla industria ezberdinez osatu zen, batzuk enpresa handiak ( Artiach, Vicinay Cadenas) eta bezte batzuk ertainagoak (Anhidrido karboniko fabrika, Jacobo Gelier garagardo fabrika...). Hauek nerbio ibaira ematen duten etxebizitzen atzekalde eta kanalaren artean ezarri ziren, ia penintsularen espazio guztia okupatuz.

80. hamarkadatik aurrera, enpresa hauek ixten hasi ziren. Gaur egun Zorrotzaurreko industrien elkartea osatzen duten 100 bat enpresa aktibo jarraitzen dute. Hauen helburua hirigintza plan berriaren haurrean enpresak defendatzea zen (Vicinay kate enpresak Sestaora mugitu egin beharko ditu bere instalakuntzak adibidez).

Industriarekin elkarbizitzen, gaur egun 500 auzokideko biztanleria jasotzen du penintsulak, hiri espazioa urteak aurrera joan ahala bizitzarako deserosoa bilakatzen delarik. Hiritik baztertua gelditu den espazioa da hain zuzen. Baina aldi berean XX. mendeko Bilbao industrialaren erreferentzia handia da, Bilboko industria memoria historikoaren oinarri.

Azkeneko bi hamarkada hauetan Zorrotzaurre hiri periferiaren adibide bikaina da, Bilboren garapen dinamiketatik kanpo geldituktakoa. Zorrotzaurrera ez da metroa ez tranbia heltzen. Definitu gabeko espazio bat da iragan eta etorkizun gehiago duena "oraina" baino.

Baina honek ez du esan nahi bizitza izan ez duenik. Auzo mugimendu garrantzitsuak izan ditu betidanik eta gaur egun Bilboko gune kultural esanguratsuenetarikoa da.

Irlaren **garapen historikoa** argazkietan:



**1945** urteko argazkia. Bertan deustuko erribera argi ikusi daiteke bere ortuekin



**1965** urteko argazkia. Bertan kanalaren eraikuntza lehen pausuak nabariak dira.



**1983** urteko argazkia. Bertan kanalaren funtzionamendua ikusi ahal dezakegu.



**2015** urteko argazkia. Gaur egungo egoera, kanala ez dauka erabilerarik.

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proiekto gunearen analisia_garapena 01

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario MAL



Gaur egungo arrera nagusia eta ardatza

**Gaur egungo egoera,** pabelioiak penintsula aldez aldera okupatzen dute. **E 1/600**



Master plan ondorengo harrera berria eta ardatza

**Masterplana burutu ondorengo egoera,** ia pabilioi guztiak eraisten dira gunea desitxuratuta utziz. **E 1/600**




**Master plana burutu ondorengo eskema.** Eskema honetan eremuaren trataera falta ikusten da, nola eraikin babestuak mantendu dituzten inolako lotura burutuz. Proiektuan geroago aipatuko den espazio honen lotura bilatuko da, baita erabilera kulturala duten eraikinen indartzea eta handipena penintsularentzako zentro kultural aktibo bat ahalbidetuz, auzoarentzat gidatua, gaur egun funtzionatzen duen moduan. Zorrotzaurren sortutako auzo mugimendu kulturalak oso onuragarriak izan dira irlarentzako, hauek zaintzea helburutzat hartuko da.



**Zorrotzaurreko plan bereziaren forma eta erabilera planoa,** proiektua garatuko den gunean oinarrituz.

- Berdegune espazio publikoak
- Erregimen libreko etxebizitzak
- Ekipamendu kulturalak
- Ekipamentu pribatuak
- Ekipamentu publikoa
- Proiektua garatuko den eremuaren muga
- Gaur egungo erriberaren trazadura
- Itsas-lehortar jabari publikoko zortasun gunearen barne lerroa
- Proiektuan tratatuko diren ageriko mehelinak

Bilboko udalak 2012ko azaroan zorrotzaurreko hiri-antolakuntza plan berezia behin-betiko onartu zuen.

Irla guztiz birpartzelatuko da bertako erabilerak aldatuz. Erabilera nagusia etxebizitza izango da eta ondoren produkzio eta 3. Sektoreko ekipamenduak ezarriko dira irlan zehar (planoan ikusten den moduan). Berdeguneek eta espazio irekiek garrantzia handia hartuko dute. Industria eraikinek kendutako ibai hertzen berreskuraketa planteatzen da, pasealeku berriak lortuz. Garraiobideak ere hobetuko dira, errepide berriak eta tranbiaren sarrera ahalbidetuz.. Proiektua burutzerakoan garrantzitsua izango da mantentzen diren eraikinak barneratzea eta hauen trataera planteatzea (agerian geldituko diren mehelinen trataera adibidez).

Plano honetan San pablo elizaren inguruko eremuaren trataera ikusi dezakegu, nola zenbait pabilioi industrial mantentzea erabaki da, hauek gaur egun erabilera kulturala dutelarik. Gune kultural honetatik bakarrik hiru eraikin mantentzen dira (Rd-10.1 B_EQ-8). Beraz zentro kulturalak indarra izan dezan lotura eta eraikin berriak planteatu beharko dira. Diseinua burutzerakoan sortzen diren bide eta kaleak errespetatzea bilatu da, baita gunearen harrera nagusiaren aldaketa (tranbia eta errepide gunetik burutuko da orain).

Proiektu gunearen **garapen historikoa** argazkietan:



**1945** urteko argazkia. Deustuko erribera ikusgai.



**1956** urteko argazkia. Kanalaren eraikuntza lehen pausuak.



**1965** urteko argazkia. Kanalaren eraikuntza ikusgai.



**1983** urteko argazkia. Eremuak industria erabilera.



**2015** urteko argazkia. Eremuak erabilera kulturala.

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Kokapena eta proposamena 02

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**








**GAIA**: Zorrotzaurreko kultur zentroaren berreskuraketa.

Master plan berriaren eremuaren berrantolaketa ikusgai, argi dago gaur egun dagoen kultur zentro aktibo eta publikoaren desitsuraketa. Proiektu honetan auzoarentzako hain aberatsa den gunea berreskuratzea da helburua. Beraz, diseinua hirigintza plan berriarekin guztiz erlazionatua egon behar da.

Gaur egun dagoen zentro kultural aktiboaren garapena bilatuko da, zerbitzu bai instalazio berriak ezarriz. Proiek-tua etorkizunean burututuko den master planera egokituz. Aipatutako plan honetan bakarrik bi pabilioi industrial mantentzea planteatu da, gauzatuko den proiektuan hauen integrazioa bilatu nahi da diseinatuko diren insta-lazio berriekiko.

Gaur egun, elkarte kultural ezberdinez osatuta dago eremua. Proposamen berrian hauen konbinaketa planteatzen da zentro kultural indartsu berria sortuz.

E 1/400

**Proposamenaren kokapen planoa,** eremu osoaren oina adierazioko da baita mantendu den ardatz nagusia. Espazio publikoak eraikin kultura desberdinak joztuko ditu erlazio zuzenak bermatuz. Konplexua gaur egun ikusi daitekeen moduan eraikin isolatuez osatuko da bakoitzak programaren atal bat barnratuz.

Espazio publikoaren trataeraren lehenengo fasea.

**Proiektuaren programa,** sustatu nahi diren ekintzak aipatuko dira eraikinetan zehar burututako banaketa adieraziz.

Tailer guneak | kafetegiak | Kontzertu guneaK | eremu berdeak | sorkuntza artistiko espazioak | media lab guneak | antzerki sorkuntza espazioak | auzoarentzako espazio aproposa

**Harrera eraikina**

-Zentroaren errezepzioa
-Erakusketa aretoa

Eraikin hau erreformatuetako bat izango da, honek estalki laua duenez, odorengo paneletan ikusiko den moduan "hostel" gunearentzako terraza bezala proposatu da.

**Media lab eta azoka eraikinak**

-Media lab tailerrak + ebaketa gelak
-bigarren mailako azoka aretoa
-zentroaren kafetegi nagusia

Bi eraikin hauek guztiz berriak dira, gaur egun ikusi daiteken estetika industriala izango dute eraikuntza teknika berriak barneratuz.

**P6 Antzoki zentro kulturala (handipena)**

-Antzoki handipena (200 plazako antzokia)
-Entsegu eta tailer aretoa
-kafetegi txikia
-kamerinoak
-bilegiak

Eraikin hau erreformatu eta handituko da, lehen 150 eserlekuko antzokia zen inolako serbitzu guneekin.

**Hostel + mediateka + bulegoak**

-mediateka (behe solairuan)
-bulegoak (behe solairuan)
-arte lantegi aretoa (lehen solairuan)
-Hostel gunea (lehen eta bigarren solairuan):

Zentroan lan egiten duten pertsonentzako hostala diseinatu da. 2 pertsonentzako 10 gelaz osatzen da (okupazioa 20)




**PROGRAMA eskema**



Erreformatu diren eraikinak

Proposatu diren eraikin berriak

Ageriko mehelinen tratamendua.
Hezi begetalak planteatu dira gune publiko eta pribatuak haien artean bananduz. Limite difusoagoa eta erosoagoa lortuko da. Bi fasetan bananduko da

Fluxu nagusien trazadura

Berdegune berriak

Eraikinen barneko programa

1. Kantxa berrien ezarpena/
2. Estalki berdedun aparkalekua/
3. Hostel + mediateka + bulego eraikina/
4. Gunearen kafetegi nagusia/
5. Bigarren mailako azoka gunea/
6. Plaza zentrala/
7. Media lab gunea/
8. Harrera gunea/
9. Erakusketa aretoa/
10. Entsegu aretoak eta kamerinoak/
11. Antzoki eraikina/
12. Bigarren mailako plazak, deusto erribera pasealekuaren luzapenak/
13. Zawp aretoa/
14. Espazio publiko estalia

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

## Mehelinen trataera proposamena

03

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario MAL



E 1/300

**Fatxaden tratarea oina,** espazio publikoaren trataeraren bigarren fasea.

Panel honetan fatxaden trataeraren bigarren fasea adierazten da. Aurreko panelean denbora baterako filtro bejetalaren diseinua zehaztu da, honetan berriz, fatxaden trataera zuzena.

Horretarako oin orokorrean ikusi ahal den moduan bigarren mailako plazara ematen duten etxeizitzetan terraza sistema bat planteatu da. Egitura metaliko bat ezarriko da barneko egituraren trama berbera jarraituz gaur egun dagoen erritmo apurketa isladatuz. Modu honetan plazan jarraitasuna bermatuko da jatorrizko trama errezpetatuz. Filtro begetala egitura metalikoan ere bermatuko da eguzki babes moduan ere funtzionatuz.

Beheko planoetan terraza sistemaren ebaketa eta altxaera ikusi daitezke. Etxebizitzak rebaliotzeaz gain plazaren konekxioak eta pibatu-publiko eremuen arteko erlazioak hobetzen dira, hau aberaztuz. Espazioak erlazionatzeaz gain plazan komertzioak ezarriko dira, hauek aldez aldera komunikatuak egonik (Deustuko erribera kalea eta plaza konektatuz).

Ribera de Deusto kaleran trataera ezinbeztekoa izango da planteamendurako, hau trafiko kontrolatudun pasealeku berriaren bidez eta ibaiaren trataeraren bidez garatuko da, planoan ikusi ahal den modua.



E 1/300 **Fatxaden tratarea Altxaera,** espazio publikoaren trataeraren bigarren fasea.



E 1/300 **Fatxaden tratarea Ebaketa,** espazio publikoaren trataeraren bigarren fasea.



E 1/300 **Terrazen trataera azken oina**



E 1/300 **Terrazen trataera bigarren oina**



E 1/300 **Terrazen trataera lehen oina**







# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proposamen planoak 04

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**



**E 1/100**

**Antzoki_Harrera_Hostel eraikinen behe oina,** "Hostel" eraikinaren behe solairuan bulegoa eta mediateka kokatzen dira






**E 1/100**

**Hostel eraikinaren lehen oina,** Solairu honetan 5 gela eta arte tailerra kokatzen dira



**E 1/100**

**Hostel eraikinaren fatxada,** inguratzen duen geruza ikusi daiteke. Filtro moduan funtzionatuko du.



**E 1/100 BB'**

**Hostel eraikinaren kaleko korridoretik eginiko ebaketa,** Eraikanren kominikazio nukleoa ikusi daiteke, baita harrera eraikinaren gainean ezartzen den solairua.

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proposamen planoak



Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**






E 1/100

**Antzoki_Harrera_Hostel eraikinen 2 solairu oina,** Antzokiaren eserleku gunea osorik ikusi daiteke, "hostel" eraikinaren gune komunitarioa harrera eraikinaren gainean proposatu da, terraza barneratzen duelarik.



**E 1/125 CC'**

**Hostel_Harrera_Antzoki eraikinen plaza nagusiko altxaera,** Fatxaden arteko materialen konposaketa ikusi daiteke (hostel eraikinaren filtroa, harrera eraikinaren jatorrizko altxaera hutsarte berriekin eta antzokiaren jatorrizko fatxadaren sarrera berria).



**E 1/125 BB'**

**Antzoki_Entsegu gela_Hostel eraikinen atzeko altxaera,** Fatxaden trataera: Fatxada itxuak eta ageriko mehelinak estaltzeko metodoa ikusi daiteke, landare igokaridun filtro bat hain zuzen. Honek espazio publikoaren jarraitasuna bermatuko du.



**E 1/100 AA'**

**"Hostel" eraikinaren zeharkako ebaketa,** beheko mediateka eta bulegoak ikusi ahal dira gainean gelak ezartzen direlarik.

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proposamen planoak 06

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario MAL



E 1/200 CC'

**Gune publikoen altxaera,** Fatxada itxuen trataera eta gune publiko estaliak ikusgai



**Plaza nagusitik ebaketa,** estalkien konposaketa ikusgai

E 1/150 AA'




E 1/150 BB'

**Media lab eta Azoka eraikinen altxaera**












E 1/125

**Media lab eta azoka eraikinen oina**

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proposamen planoak 07

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**



E 1/150 BB'

**Zawp eta Antzoki eraikinen ebaketa**



CC' E 1/150



**Parkinaren bigarren ebaketa,** malda adierazten da. Aireztapen mekanikoaz gain, aireztapen naturala ezartzen da parkinean, argia ere sartzen delarik.



**Parkinaren oin nagusia,** 40 plazak ikusgia. sotoko eraikinaren azpiko gunea - instalazio aretoak biltegiak eta garbiketa gela ezaryzeko erabili dira.

E 1/400




**Espazio publikoaren altxaera,** Hasieran aipatu den moduan penintsula, gaur egun, eraikin industrialez guztiz okupatuta dago, arnasa hartu barik. Plan berezian, gune honen aireztapena planteatzen da zenbait pabilioi eraitsiz, baina etxebizitza eraikinen atzeko fatxadak tratatu barik gelditzen dira. Proiektuan mehelin eta fatxada atal hauen trataera planteatzen da filtro begetal bat ezarriz (landare igokariekin). Eraikinentzako gune eta espazio publikoaren artean limite difuso bat ezartzen da eta aldi berean zentro kultural berriaren eraikinak lotzen ditu, espazio publikoaren lotura elementu bezala funtzionatuz.

Plazako etxebizitzen fatxadetan aldiz, terraza sitema bat ezartzen da (altzairuzko kanpo egitura). Gainontzeko eraikinetan ezarritako filtro begetal bera planteatzen da eremu publikoaren jarraitasuna eta uniformetasuna bermatuz.



E 1/200 AA'

**Eremuaren zeharkako ebaketa,** parking_hostel_harrera_antzoki_espazio publikoa

Parking eraikinari dagokionez zentroan lan eta bizi diren pertsonentzat egokitutako espazioa izango da, 40 aparkaleku dituelarik.

# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa
## Proposamen planoak eta bolumetriak 08

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario MAL

Proiektuaren eraikin nagusien bolumetria azaltzen da jarraian, Media lab eta antzoki guneko bi eraikinena hain zuzen.

Eraikin nagusiari dagokione solairuz solairu eginiko analisia eta bolumen ezarpen eskema eskeini dira:

0.Solairuan_Gune publikoa ikusi daiteke: antzokia, harrera, entsegu aretoa, mediateka eta bulegoa.
1.Solairuan_"Hostel" eraikina eta antzokia osorik ikusi ahal dira: Gelak eta arte sorkuntza tailerra.
2.Solairuan_"Hostel" eraikinaren gelak eta gune amankomuna ikusi ahal dira.
4.Bolumetria orokorra_Estalkien konposaketa eta terraza ikusgai.

Antzokiaren bolumetria:

Eraikin zaharren birgaitzeari dagokionez, P6 antzokiak aldaketa ugarienak jasan ditu. Jatorrian serra itxurako estalkia zuen. Hau, guztiz eraistea planteatu da (amiantodun fibrozementuz osatua zegoen). Honek antzokiaren distribuzio berria eta altuera irabaztea ahalbidetuko du. Antzoki aretoan egitura metaliko independente bat proposatu da (kutxa baten barruan antzoki erabilera betetzeko ezaugarridun beste kutxa ezarriz). Eraikinaren hall eremua argizulodun estalki batek ixten du, jatorrizko eraikina eta bolumetria berria lotzen dituena.

Eraikinean estalki berri bat lortzen da, "Hostel" gunearen bolumetriari keinu eginez eta jatorrizko serra formadun estalkiaren abstrakzioa adieraziz. Honek, eszenatokiari altuera eskainiko dio, antzoki funtzionalago eta handiago bat lortuz.



0 Solairuaren axonometria



1 Solairuaren axonometria

Eskema bolumetrikoaren leienda:

- "Hostel" eraikina bere komunikazio nukleoerekin
- Antzoki aretoaren "kutxa"
- Antzoki eraikinare zerbitzu gunea (entsegu aretoak)
- Jatorrizko eraikinak, estalkiak berreraikiko dira.

Bolumen ezarpen eskema



2 Solairuaren axonometria



Eraikina bere osotasunean, axonometria





E 1/100
"Hostel, Harrera eta antzoki eraikinen zeharkako ebaketa,

**Media lab eta Azoka eraikinen axonometria**

Media-lab, Azoka eta kafetegi eraikinen bolumetria azaltzen da. Irlan zegoen jatorrizko eraikuntza industrialaren esentzia mantentzea hartu da helburutzat, teknika berriak aplikatuz. Espazio publikoan ezarritako hezi begetala eremuaren limitea markatzeko erabili da. Eraikinek argiztapen zenitala dute eta aireztapen sistema argi-zuloetan diseinatu da.



# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proposamen eraikuntza 09

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**

Proiektuan eraikuntza industrialaren esentzia mantendu nahi da, Bilboren azkeneko arrasto industrial den irlaren memoria historikoa errespetatuz. Horretarako teknika berriak erabili dira. Estalkiak zink txapaz eta argi zuloz osatuta daude.

Fatxada aldiz, konplexuagoa da. Bi orriz konposatuta dago, kanpokoa polikarbonato lamina zeharrargiz osatua eta barnekoa (konbentzionalagoa) termoartzillazko blokeez.





**E 1/50**
**Media lab eraikinaren xehetasun ebaketa,** Zertxa sistemaren diseinua ikusi daiteke, baita aireztapena bermatzen duten argizuloak





Galeriaren infografia barrutik

Bi infografia hauetan ebaketan ikusi daitekeen galeria adierazten da. Bat barnealdetik, "hostel"-aren gelen sarrerara ematen duena, eta bestea kanpoaldetik, komunikazio nukleo nagusia barne. Kanpo pasabide honek "Hostel" eremura, mediatekara, bulegoetara eta entsegu geletara sarrera eskaintzen du.

**XEHETASUNEN LABURPEN ZERRENDA**:
informazio gehigarria liburu teknikoan

FATXADAREN LEGENDA:

- F1_Fatxadan ezartzen den erretena
- F2_Fatxadaren aireztapen sistema
- F3_Erretenaren lamina iragazgaitza (Bituminosoa)
- F4_Kanpoko orriaren euskarri perfil metalikoak
- F5_Polikarbonato ate labainkorren euskarria
- F6_Barne leihoen marko metalikoak
- F7_Climalit sistemadun beirate bikoitza
- F8_Zink zorrotena, fatxadaren barnetik ezarria
- F9_Maldadun erremate pieza (isolatzailea barne)
- F10_Termo artzilla blokeak 19zm
- F11_Dintela, hormigoi armatua
- F12_Dintel erremate pieza, termo artzilla
- F13_Lehioaren euskarria, barne orrian
- F14_Polikarbonato laminak, trikapa
- F15_Kanpo orriko egituraren euskarria, barne orrian
- F16_Arroka artile isolatzailea 7zm
- F17_Isolatzaile akustikoa, sabai faltsuan ezarria
- F18_Barne trasdosatua, pladur sistema bikoitza
- F19_Polikarbonato plaken euskarri rastrelak
- F20_Fatxadaren aireztapena, behetik

ZIMENDUEN LEGENDA:

- Z1_Solera armatua 25zm
- Z2_Nibelazio mortairua (garbiketa hormigoia)
- Z3_Legarra
- Z4_Baldosa hidraulikodun kale zoladura
- Z5_Zoladuraren nibelazio mortairua
- Z6_Egituraren bermaketa armatuak, sotoko horman
- Z7_C perfil metalikoa, altzairua
- Z8_Sotoko horma, 30zm, hormigoi armatua
- Z9_Lamina iragazgaitza, bituminosoa
- Z10_Delta drain drenaiatze sistema, lamina
- Z11_Soleraren enkastratua sotoko horman 10zm
- Z12_Drenaiatze legarra
- Z13_Lamina geotextila
- Z14_Drenaia tutu porotsua PVC
- Z15_Zapata jarraia, sotoko hormarena
- Z16_Garbiketa hormigoia 15zm

ESTALKIAREN LEGENDA:

- E1_Zink estalkiaren junta altxatua
- E2_Zink estaldura lamina
- E3_Lamina iragazgaitza bituminosoa
- E4_Arroka artile isolatzailea 10cm
- E5_Lurrinaren aurkako hezi lamina bituminosoa
- E6_Trapezio akustikoak, RockWoll
- E7_Altzairuzko txapa kolaborantea 0,7zm
- E8_Kumbrera zin lamina
- E9_Zink erretena, faxtadan bermatua
- E10_Fatxadaren kunbrera pieza metalikoa.

**E 1/40 BB'**
**Xehetasun ebaketa,** Eraikin berria aldez-alde harturik



# ZKZ Zorrotzaurre kultur zentroa

Proposamen eraikuntza






Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**



E 1/40 AA′

**Xehetasun ebaketa,** Negutegi itxura duen tailerretik burututako ebaketa




E 1/40 BB′

**Xehetasun ebaketa,** Eraikina tekniko gunetik eginiko xehetasun ebaketa




E 1/25

**Xehetasun ebaketa,** Terraza gunetik burututako ebaketa, bezte norabidean




E 1/25 — **Z1** Zoom ebaketa




E 1/25 — **Z2** Zoom ebaketa

## Z1 // Z2 EBAKETEN LEGENDA

- 1.Fatxadaren kumbrera pieza metalikoa, maldaduna
- 2.Fatxadaren aireztapen sistema, ura kanporatuz
- 3.Erretena 250mm zabalera, zink estaldura eta lamina iragazgaitzarekin
- 4.Polikarbonato goteroidun pieza
- 5.Kanpoko orriaren azpiegituraren bermatze altzairu perfila
- 6.Polikarbonato piezen arteko lotura markoa, 1/5 eskalan xehetua
- 7.Polikarbonato plakak, trikapa 1mx4m
- 8.Polikarbonato plaken euskarri rastrela, altzairua, 50x50mm
- 9.Estalkiaren euskarri habexkak
- 10.Polikarbonato plaken euskarri perfil metalikoa, habexken gainean ezarria
- 11.Zoru teknikoa
- 12.Lamina iragazgaitza eta akabera plastikoa
- 13.Erremate altzairu pieza
- 14.Txapa kolaborantearen berme pieza
- 15.Arroka artile isolatzaile termikoa, 6 cm
- 16.Neopreno junta, dilatazioak eta mugimenduak ekiditeko
- 17.Isolatzaile termikoaren euskarri pletinak
- 18.Hutsartearen premarko metalikoa
- 19.Goteroidun pieza
- 20.Muntagai bertikalak, kanpoko orriaren jasotze azpiegitura
- 21.Climalit sistemadun beira, aire ganberarekin
- 22.Polikarbonato plaka bertikalak, trikapa
- 23.Hutsarteen marko metalikoak
- 24.Maldadun pieza metalikoa
- 25.Hutsartearen berme pieza metalikoa barne orriarekin

## TERRAZA EBAKETAREN LEGENDA

- T1.Terrazaren barne orriko kunbrera pieza metalikoa, goteroiduna.
- T2.Kunbreraren eta barne orriaren arteko lotura
- T3.Lamina iragazgaitza eusteko pieza, barne orrira bermatua
- T4.Zorrotena 100mm (Zink)
- T5.Sumidero
- T6.Pladur sistema, sabai teknikoa
- T7.1,5 m ezartzen den arroka artile isolatzailea 6 cm
- T8.Nibelazio mortairua
- T9.Lamina iragazgaitza
- T10. Poliestireno extruitua XPS, hidrofugoa 6 cm
- T11. Materialak banatzeko lamina
- T12. Zolatu flotantearen baldosak
- T13. Zolatu flotantearen euskarriak.